

SEGMENTAZIOA

Gure produktua pantaila adimenduna duen hozkailu bat da, aplikazio mugikor batekin konektatua, eguneroko bizitza errazteko sortua.

Gaur egun pertsona askok denbora gutxi dute erosketak planifikatzeko edo etxean modu osasuntsuan sukaldatzeko eta horrek janari azkarra kontsumitzera eramaten du, adibidez, Espainian 2024ean janari azkarak %6,3ko gorakada izan zuen. Gainera janari asko alferrik galtzen da antolakuntza faltagatik eta horrek diru galera handia dakar. Hainbat daturen arabera, Espainian 2024ean pertsona bakoitzak 21,5kg hondakin bota zituen, haietatik %97,5 etxeetatik etorritakoak, eta batez ere haurrak dituzten etxebizitzetan gertatzen da hori, haien %70ak janari asko alferrik botatzen baitu egunerokoan. Aipagarria da ere etxe arruntetan pertsona bakoitzak 172€ inguru gastatzen dituela janarian edo elikaduran hilabetero.

Datu guzti hauek jasota eta arazoa kontuan hartuta, gure produktuak irtenbide eroso eta moderno bat eskaintzen die.

• SEGMENTAZIO DEMOGRAFIKOA

Produktua batez ere 25 eta 65 urte bitarteko pertsonen zuzenduta dago (Espainiako biztanleriaren %57), bereziki gurasoen (%66) edo bakarrik bizi diren pertsonen (etxebizitzaren %28), hau da, denbora gutxi dutenak.

Generoari dagokionez denontzat pentsatua dago eta diru sarrera ertain edo altuak dituzten etxetan izango du eragin handiena. Halaber adinekoak ere kontuan hartzen dira, batez ere ikusmen edo mugikortasun arazoak dituztenean, eta beraz horrelako pertsonak zaintzen dituzten %87,9 emakumeak direnez esan genezake litekeena dela batez ere emakumeek erostea. Datu gehiago gehitzearren, Espainian 58.300 itsu eta ikusmen murriztua duten 920.900 pertsona daude, eta orokorrean 1,63 milioi mendeko pertsona (biztanleriaren %3,4). Haiek zaintzen 83.589 ez-profesional daude lanean, hala ere 10etik 4k egin du noizbait zaintzaile lana, beraz milioika pertsona daude adinekoak edo mendeko pertsonak zaintzen edo zaintzeko beharrarekin.

• SEGMENTAZIO GEOGRAFIKOA

Gure hozkailua batez ere hiri eremuetan bizi diren pertsonen zuzenduta dago, biztanleriaren gehiengoa, %80 inguru hiri eremuetan bizi baita, teknologia erabiltzeko ohitura duten inguruneetan. Janariaren antolaketari garrantzi handia ematen zaion tokietan eta erosketak maiz egiten diren lekuetan ere bereziki erakargarria izango da, eta, beraz, aipatutako eremuetan zein pertsona motetan (adinekoak, mendekoak, gurasoak edo bakarrik bizi direnak).

- **SEGMENTAZIO PSIKOGRAFIKOA**

Bizimodu digitala eta modernoa duten pertsonak izango dira gure bezero nagusiak, erosotasuna eta denbora aurrezteko baloratzen dutenak. Adibidez, biztanleriaren %92k internet erabiltzen du egunero, beraz oso ohikoa da. Era berean jasagarritasunaz kezkatzen diren kontsumitzaileentzat ere aproposa da, janari hondakinak murrizten laguntzen duelako.

- **JOKABIDE SEGMENTAZIOA**

Bezeroek gure produktuan bilatzen dutena etxeko janariaren kontrol erraza da, erosketak hobeto antolatzea eta alferrikako gastuak saihestea. Aplikazioari esker hozkailua edozein momentutan kontrola daiteke eta pantaila zein ahots bidezko funtzioek erabilera erraza eskaintzen dute guztiontzat.

- **ONDORIOA, BEZERO NAGUSIA**

Laburbilduz, gure bezero nagusia familia da, lanpetuak eta denborarik gabe daudenentzako, antolakuntza hobea bilatzen dutenentzako eta dirua zein denbora aurreztu nahi dutenentzako. Gainera jasagarritasuna eta erosotasuna baloratzen dituen kontsumitzailea izango da.